

## **ESKORIATZA / 'Musika airean' liburua** **gaineko lehiaketa hasi da**

Karmele Jaio idazle gasteiztarraren 'Musika airean' liburua oinarritutako lehiaketa antolatu du Udalak. Liburuaren gaineko lau galdera egingo dituzte asteko lau egunetan eta lau galderak ondo erantzuten dituztenen artean e-book bat zozketatuko dute. Gaur, astelehena, egin dute lehenengo galdera.

Gaur, bihar, eguaztenean eta eguenean argitaratuko ditu Udalak galderak eta parte hartu nahi dutenek hilaren 20a baino lehen lau galdera horien erantzunak aurkeztu behar dituzte.

### **Galderok hiru lekutan agertuko dira:**

1. Udalaren webgunean
2. Facebook-eko Euskara Zerbitzuaren kontuan:  
[Facebook.com/eskoriaetzeuskara](https://www.facebook.com/eskoriaetzeuskara)
3. Bibliotekako eta kultura etxeko informazioguneetan.

### **Erantzunak ere hiru eratara bidal daitezke:**

1. [euskara@eskoriatza.net](mailto:euskara@eskoriatza.net) helbidera
2. Facebook-eko kontura: [Facebook.com/eskoriaetzeuskara](https://www.facebook.com/eskoriaetzeuskara)
3. Zuzenean bibliotekan utzita

Zozketa hilaren 22an egingo dute, Karmele Jaiok kultur etxean (19:00) egingo duen hitzaldiaren ostean.